



KALITATE ETA INGURUMEN POLITIKA

Bizkaiko Industri Ingeniariei Elkargo Ofizialaren (aurrerantzean, **BIIEO**) egitekoa da elkargoko kideen garapen pertsonal eta profesionalean laguntzea eta Industri Ingeniaritzaren lanbidea behar bezala garatzen dela zaintzea. Horren barruan sartzen da Industria Ingeniarientzat bai Gizartearentzat zerbitzuak ematea, zerbitzu horiei zehaztasun, sormen eta etika profesionaleko irizpideekin helduz, metodologia eta teknika aurreratuenak erabiliz nazioartean, diziplina anitzetan eta adimen-independentzia handienean.

Testuinguru horretan, **BIIEO**k Kalitatea eta Ingurumena Kudeatzeko Sistema Integratua antolatzea erabaki du, UNE-EN-ISO 9001:2015 eta UNE-EN-ISO 14001:2015 arauekin bat etorriz. Izan ere, garapen iraunkorraren ikuspuntutik abiatuta, eskainitako zerbitzuek gehieneko Kalitate mailak eskuratzea lortu nahi da, ingurumenarekin errespetu handiena edukiz erakundeak horretan eraginik izan dezakeen alderdietan.

BIIEOek onartutako Kudeaketa Sistema Integratuaren ildo estrategikoak honako hauek dira:

- Garatutako jardueretan Kalitatea eta Ingurumena lehenetsun-maila berean kudeatzeko, kutsaduraren prebentzioan eta etengabeko hobekuntzan oinarrituta.
- Jarduera guztiak legezko araudiaren, araudizko aplikagarriaren eta Erakundeak ezarritako bestelako baldintzen arabera garatea.
- Bezeroei eskainitako zerbitzuen kalitatea aldiro-aldiro neurtzea, horien efikazia eta etengabeko hobekuntza nahiz bezeroak gogobetetzea lortze aldera.
- Egindako jardueretan ingurumenari lotuta dauden alderdiak ebaluatzea eta alderdi horiek Ingurumenean duten eragina murrizteko dagozkion neurriak hartzea.
- Erakundeko pertsonak prestatzea, informatzea eta sentsibilizatzea Kudeaketa Sistema Integratuaren testuinguruan beren zereginak garatzeko behar dituzten alorretan. Horrela, beren jarduera efikazagoa eta Ingurumenarekin errespetu handiagoa izango du, bezeroarenganako orientabidea sustatuz.
- Komunikazio eta informazio sistema ezartzea, barrukoa zein kanpokoa, iradokizunak eta praktika onenak kontsulta prozesuen bitartez sartzea ahalbidetuz.

Ildo estrategiko horietan oinarriturik, **BIIEO**k aldiro-aldiro zenbagarriak diren helburu zehatzak ezartzen ditu, dagozkien plangintzak bitartez jarraitzeko.

BIIEOeko dekanok, eta bere orde, Zuzendaritzak, Politika hori langileen komunikazio-, informazio- eta motibazio-plan egoki baten bidez ezagutu, ulertu eta onartzen dela ziurtatzen du. Halaber, ezarritako kudeaketa-sistema integratua eraginkorra dela egiaztatzen du, auditoriak eginez eta aldiroko berrikuzpenak eginez.